BIODIBERTSITATEA

B

# Biodibertsitateari buruzko jardunaldiak

# Amurrio

## 2010eko maiatzak 19, 20, 21 eta 22

**Katekesi Aretoan 19:30**

2010. urtea Dibertsitate Biologikoaren Nazioarteko Urtea da, biodibertsitatea babesteaz sentsibilizatzeko mundu mailako kanpaina barruan.

Kanpainaren xedea da Lurreko bizitzaren dibertsitatea ospatzea eta munduko biodibertsitatean dagoen galerari aurre egitea. Iraungipenaren erritmoa beldurgarria da, erritmo normala baino mila aldiz handiagoa baita. Giza jarduerak eragiten du galera hau eta gorabehera klimatikoek larriagotu egin dezaketela uste da.

Kanpainaren leloa honakoa da: ***“Biodibertsitatea bizitza da. Biodibertsitatea gure bizitza da”***, eta naturak Lurreko bizitza babesterakoan duen funtsezko zeregina azpimarratzen du, baita gurea babesterakoan ere. Kontuan izan behar da biodibertsitatea babestea planeta mailako kezka dela eta tokiko ekintzak egin behar direla.

Azpimarratu beharra dago globalizazioak, mundu mailako merkataritzak eta aldaketa klimatikoak presio handiagoa egiten dutela Biodibertsitatean eta presio hori txikitu beharra dagoela. Horretarako, mundu, nazio, autonomia eta toki mailako politikak egin behar dira; gure garapen eredua aldatu beharra dago eta lan egin behar da garapen iraunkorraren alde eta biodibertsitatea babestuko duen lurralde antolamenduaren alde.

Amurrioko Udalak urte osoan zehar ospatu nahi du, eta maiatzaren 22an bereziki, “Biodibertsitatearen mundu mailako eguna” baita. Horretarako, biodibertsitateari buruzko jardunaldi batzuk egingo dira, herritarrei gure inguruko fauna eta florako espezieak gerturatuta. Egunero ikusten ditugun espezieak dira, eta garrantzi handia dute gure ekosistemen orekarako.

Espezie biologikoak funtsezko baliabideak dira Lurrean gizateria garatzeko, gure elikagaiak hortik baitatoz, baita gure ondasun eta zerbitzu asko ere, gure garapena bermatzen dute eta ekonomia eta gizarte mailako ongizatea ere bai, baina gero eta presio handiagoa egiten dugu biodibertsitatearen gainean; lurzoruaren erabilera aldatuta habitatak zatitzen, narriatzen eta suntsitzen ditugu. Lurzoruaren erabilera aldatu dugu ekoizpen-sistemak aldatu eta areagotu ditugulako, praktika tradizionalak baztertu ditugulako, katastrofe naturalak gertatu direlako (suteak barne) eta gehiegizko ustiaketak eta kutsadura sortu ditugulako.

BIODIVERSIDAD

B

# Jornadas sobre biodiversidad

# Amurrio

## 19, 20, 21 y 22 de mayo de 2010

**Salón de la Catequesis 19:30**

El año 2010 ha sido declarado como Año Internacional de la Diversidad Biológica en una campaña mundial para la sensibilización de la protección de la biodiversidad.

La campaña pretende *celebrar la diversidad de la vida en la Tierra y combatir la perdida de biodiversidad en el mundo*. El ritmo de extinciones es alarmante, mil veces el ritmo que sería normal. *Esta pérdida es causada por la actividad humana y se estima que pueda ser agravada por las alteraciones climáticas.*

El lema de la campaña, ***“La biodiversidad es la vida. La biodiversidad es nuestra vida“,*** subraya el papel crucial de la naturaleza en apoyo de la vida en la Tierra, incluyendo la nuestra y se debe tener en cuenta que la protección de la biodiversidad es una preocupación planetaria que necesita de acciones a escala local.

Hay que destacar igualmente que la globalización, el comercio mundial y el cambio climático intensifican la presión sobre la Biodiversidad, y debemos frenar esta presión, tanto con políticas mundiales, nacionales y autonómicas, como desde local, cambiando nuestros modelos de desarrollo y trabajando por un desarrollo sostenible y una ordenación del territorio que proteja la biodiversidad.

Desde el Ayuntamiento de Amurrio se quiere celebrar este año en general y el 22 de mayo “Día mundial de la biodiversidad” en particular, mediante la celebración de unas Jornadas sobre biodiversidad, en las que acercar a la ciudadanía diferentes especies faunística y florísticas de nuestro entrono, con las que convivimos diariamente y que tan importantes son para el equilibrio de nuestros ecosistemas.

Las especies biológicas son recursos fundamentales de la Tierra para el desarrollo de la humanidad, son la fuente de nuestra alimentación y de muchos bienes y servicios que nos mantienen y que garantizan nuestro desarrollo y bienestar económico y social, pero cada vez es mayor la presión que ejercemos sobre la biodiversidad, mediante la fragmentación, la degradación y la destrucción de los hábitats, originadas por el cambio de uso del suelo que se debe, a su vez, a la conversión y a la intensificación de los sistemas de producción, al abandono de las prácticas tradicionales y a las catástrofes naturales, incluidos los incendios, así como a la explotación excesiva y a la contaminación.

## MIERCOLES, 19 DE MAYO

**19.30 – 21.00**
**Problemas de Conservación de los murciélagos en Euskal Herria. (Euskera)**
*Sr. D. Joxerra Aihartza, Doctor en Biología, profesor de Zoología en el Departamento de Zoología y Biología Celular Animal de la UPV.*

**21.00 –21.15**
**Ruegos y Preguntas.**

**21:15- 22:00**
**Salida al campo. Itinerario zoológico sobre murciélagos.**

## JUEVES, 20 DE MAYO

**19:30 –21:00**
**Los árboles trasmochos, su manejo y su importancia para la biodiversidad. (Castellano)**
*Sr. D. Samuel Álvarez Rubio. Asociación de Arboricultura Trepalari.*

**21.00 – 21.30**
**Ruegos y preguntas.**

## VIERNES, 21 DE MAYO

**19.30 – 21.00**
**La situación de los anfibios en Euskadi y las especies protegidas en la Comarca del Alto Nervión. (Castellano)**
*Sr. D. Alberto Gosá. Director del Observatorio Aranzadi de Herpetología.*

**21.00 – 21.15**
**Ruegos y preguntas.**

**21:15- 22:00**
**Salida al campo. Itinerario zoológico sobre anfibios.**

## SABADO, 22 DE MAYO

**9:30: Salida parada de autobús de la iglesia.**
**10:00 – 12:00. Visita hayas trasmochas de Goikomendi.**
**11:30 – 12:30. Visita charcas para la búsqueda de anfibios.**
**13:00. Regreso Amurrio.**

## ASTEAZKENA, MAIATZAK 19

**19.30 – 21.00**
**Euskal Herrian saguzarrak kontserbatzeko arazoak. ( Euskaraz)**
*Joxerra Aihartza jn., Biologiako doktorea, Zoologiako irakaslea EHUko Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Sailean.*

**21.00 – 21:15**
**Galderak.**

**21:15 – 22:00**
**Irteera. Saguzarrei buruzko ibilbide zoologikoa.**

## OSTEGUNA, MAIATZAK 20

**19:30 – 21 :00**
**Zuhaitz motzak, maneiua eta biodibertsitaterako duten garrantzia.(Erderaz)**
*Samuel Álvarez Rubio jn. Trepalari arbolazaintza elkartea.*

**21:00 – 21:30**
**Galderak.**

## OSTIRALA, MAIATZAK 21

**19:30 – 21:00**
**Anfibioen egoera Euskadin eta Goi Nerbioi eskualdeko espezie babestuak. (Erderaz)**
*Alberto Gosá jn. Herpetologiako Aranzadi Behatokiko zuzendaria.*

**21:00 – 21:15**
**Galderak.**

**21:15- 22:00**
**Irteera. Anfibioei buruzko ibilbide zoologikoa.**

## LARUNBATA, MAIATZAK 22

**9:30: Irteera, elizako autobus-geldiunean.**
**10:00 – 12:00 Ikustaldia, Goikomendiko zuhaitz motzak.**
**11:30 – 12:30 . Ikustaldia, putzuetara anfibio bila.**
**13:00 Amurriora itzuli.**

AMURRIO UDALA — AMURRIO AYUNTAMIENTO

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

AMURRIO UDALA — AMURRIO AYUNTAMIENTO

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava